

ASTIGARRAGA. SAGARDOETXEA.

HAUSNARKETA-TALDEA: 2. SAIOA

Eguna: 2021/05/06

Ordua: 18:00-20:30

Tokia: Astigarragako Kultur Etxe zaharra

Etorritakoak:

1. Agustina Bravo Godoy (Astiko)
2. Aintzane Barandiaran (Berdintasun eta Kultura zinegotzia)
3. Alfredo Ruiz Fernandez (Astiko)
4. Antton Arka (Goldea Elkarte)
5. Egoitz Zapiain (Zapiain Sagardotegia)
6. Garoa Mungia Hernandez (Gazte Asanblada)
7. Igone Alcibar Aldana (Astigarragako Emakumeen Etxea)
8. Jabier Lekuona
9. Jaione Irazu (Astigarragako Udala, Toki-Garapen saila)
10. Joxan Alberdi
11. Joxe Mari Alberro (Sagardun Partzuergoko kudeatzailea)
12. Joxe Miel Barandiaran (Zipotza Elkarte)
13. Juanxo Zuaznabar (Zipotza Elkarte)
14. Karmele Diaz Aristizabal (Astigarragako Emakumeen Etxea)
15. Leire Alkorta (Sagardun Partzuergoko komunikazio arduraduna)
16. Miren Josebe Lucas (Herritarra)
17. Nere Lizeaga (Gartziategi Sagardotegia, Sagardun Partzuergoa)
18. Nerea Zusberro Alberro (Astigarragako zinegotzia)
19. Pedro Garmendia (Baratz Elkarte)
20. Santi Ochoa de Eribe Usabiaga (Herritarra)
21. Xabier Urdangarin (Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria)
22. Idurre Zugazagasti (Elhuyar)
23. Maite Unzalu (Elhuyar)



Gai zerrenda:**1. Sarrera**

Ongi etorria eta eskerrak eman zaizkie parte-hartzaileei.

Lehen saioan etorri ez zirenei erregistro-orria betetzeko eskatu zaie eta gainerakoek asistentzia-orrian bete dute.

Saioaren planteamendua azaldu zaie.

Helburua: Astigarragako Sagardoetxearen etorkizuneko eszenatokiak lantzea eta herri-galdeketaarako lehen ideiak jasotzea.

Saioko planteamendua:

- **Giroitze-dinamika bat.**
 - **Sagardoetxea, etorkizuna erabaki**
 - **Sagardoetxea, Ideia berriak**
 - **Talde txikitan, etorkizuneko eszenatokiak landu**
 - **Herritarrei egin beharreko galderaren inguruan hausnartu**
 - **Balorazioa**
 - **Itxiera eta hurrengo urratsak**
-

2. Giroitzea

Nolakoa izatea nahiko zenuke Astigarragako Sagardoetxea? galdera luzatu zaie partaideei.

Horretarako, borobilaren erdian hainbat irudi jarri dira eta galdera erantzuteko irudi bat aukeratzera gonbidatu zaie, irudia eta nahi duten Sagardoetxearen lotura egiteko.

Ondoren, partaide bakoitzak bere erantzuna partekatu du.

NOLAKOA IZATEA NAHIKO ZENUKE ASTIGARRAGAKO SAGARDOETXEA?

- **Eskua eta iratze hostoa.** Herritar eta eragileen parte hartzearekin erabakitako Sagardoetxea izatea nahiko nuke, naturarekin estuki lotua egongo dena.
 - **Sagarrondoak.** Gure lurraldearen kolorea, berdea. Eguzkia berdea da.
 - **Hodeiak eta argi-izpiak.** Sagardoetxearen kontrasteak, argi-ilunak. Hasiera honetatik bukaerara eraldaketa emango denaren esperantzarekin.
 - **Mendia eta etxetxoak.** Txiki ikusi arren handia delako.
 - **Biniloa.** Zaharra eta modernoa uztartuko dituen proiektua izatea nahi dut.
 - **Mendi txangoa.** En la foto vemos grupos de personas y la Sagardoetxea debe
-

estar conformafo por personas y grupos diversos de Astigarraga.

- Mendi bide korapilatsua. Orain arte Sagardoetxearen afera maldan gora eta korapilatsua izan da, alderantziz izatea nahiko nuke.
- Globoa. Sagardo-kultura gorantz, beste dimentsio batera igotzea nahiko nuke.
- Lurra eta pala. Gatazkak gainditu eta lur emankorretik uzta berria haztea, Astigarragan ereitea.
- Hondartza. Denok dugu gustuko eta Sagardoetxeaz ere denok adostasunez eta gustura egotea nahiko nuke.
- Motorra. Sagardoetxearen norabide zuzena hartu izanaren ilusioarekin.
- Baserria. Sagardoetxeak baserriaren kontzeptu zabal eta anitza jasotzea nahik nuke.
- Ilargia. Proiektu anitz bat islatzea nahiko nuke.
- Pertsona eta itsasoa. Itxaropenez begiratzen diot etorkizunari, baita kezka puntu batekin ere.
- Eskua eta lorea. Sagardoetxeak naturarekin kontaktu zuzenean jarraitu behar duela uste dut, baita pertsonengandik, herritarrengandik hurbil ere.
- Baratza ureztatzen. Proiektu jasagarri bat izatea nahiko nuke, herriak ureztatu eta elikatuko duena, ondoren herriak berak ere fruituak jaso ditzan.
- Lau esku. Samurtasuna islatzen du, zaharren jakinduria jasotzen jakin behar du, herrian errotuta egon behar du.

3. Partaidetza-prozesua kokatu

Sagardoetxea, etorkizuna erabaki partaidetza-prozesua kokatu eta lehen hausnarketa-saioan landutakoak gogorarazi eta adostutakoak partekatu dira.

(Ikusi HT_2.saioa_Aurkezpena dokumentua)

4. Etorkizuneko eszenatokiak landu

4.1 Sagardoetxea. Ideia berriak

Jabier Lekuonak, Aritz Arrizabalagarekin batera landutako proiektu proposamena aurkeztu du, Astigarragarako Sagardoetxearen etorkizuna irudikatzeko inspiratzaile izateko helburuarekin.

Aipatutako hainbat gako:

- Astigarraga sagar- eta sagardo-kulturaren hiriburu izan behar al da? Hau erakutsi nahi al dugu?
- Mendia, herria eta ibaia lotu eta integratzeko proposamena.
 - Sagarra eta sagardoaren iruditeria herrian integratu.

- Partaidetzazko-akzioak herrian zehar gehitu.
- Sagastia, gune bizia.

4.2 Talde txikitan, etorkizuneko eszenatokiak landu

Astigarraga sagar- eta sagardo-kulturaren erreferente bihurtzea nahi bada, lau dira **Sagardoetxearen** bilakaeran azaleratzen diren eszenatokiak.

Hau horrela, talde txikietan eszenatoki bakoitza definitu dute matrizean jasotako aldagaiak kontutan hartuta. 25 minutu ingurutan, hainbat eszenatoki landu dizute.

Ondoren, talde txiki bakoitzeko ordezkari batek talde handian partekatu du taldean landutakoa.



1. TALDEA

ESZENATOKIAK ALDAGAIK	A AUKERA GAUR EGUNGOA	B AUKERA	C AUKERA	D AUKERA
ERREFERENTZIALITASUNA (herri mailakoa, eskualdekoa, EHkoa, nazioartekoa ...)		EH maila	EH mailan	Nazioartean
EDUKIAK (museoa, sagastia, dokumentazio-zentroa, denda, dastatze-aretoa, tailerra ...)		Sagastia, erakusketa, dastaketa, gela anitza denda	Sagastia, erakusketa, dastaketa, dok.zentroa, faktoria gunea, kanpoko gunee estalia, gela anitza, denda	Javier. Sektoreko bulegoak, Faktoria TOP Ikerketa + Formakuntza
ONURADUN ZUZENAK (herritarrek, sagar-eta sagardo- sektorea, ostalaritza, hezkuntza komunitatea, ikerketa alorra, turismoa ...)		Herritarrek + bisitariak	Herritarrek + bisitariak	Herritarrek + sektoreko jendea + bisitariak + ikerlariak (formakuntza)
ERAGILE ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA (zuzena, altua, baxua ...)		Herriko ekimenak. Ikastola ERTAINA (baxua)	ERTAINA	ALTUA
HERRIAREKIKO KONEXIOA (herri dinamikan txertatua, kanpo eragilea ...)		Egun puntualetan	Egun puntualak + faktoria lanak + gunee estalia (familian)	Nahiko ohikoa (herriak berea sentitu)
KOKAPENA (gaur egungo kokapena, herri barruan, kanpoan, sagastia ...)		Oraingo lekuan (Sagasti ondoan, zentroan)	Oraingoaren ondoan, beste eraikin bat	Sagasti ondoan
FINANTZAKETA (Udala, GFA, EJ, kanpo eragileak ...)		Udala / Auto-finantziazioa (EJ + foru Aldundia - puntualki)	Udala, E.J, Foru Aldundia, Auto-finantziazioa	Udala, E.J, Foru Aldundia, Auto-finantziazioa

2. TALDEA

ESZENATOKIAK ALDAGAIK	A AUKERA GAUR EGUNGOA	B AUKERA	C AUKERA	D AUKERA
ERREFERENTZIALITASUNA (herri mailakoa, eskualdekoa, EHkoa, nazioartekoa ...)		Astigarragan errotua eta maitatua. EHra zabaldua		
EDUKIAK (museoa, sagastia, dokumentazio-zentroa, denda, dastatze-aretoa, tailerra ...)		Museoa / Dokumentazio zentroa / Erakusketa gela / Denda / Tailerra / Dastatze-gunea / Tailer eta saio anitza / Sagastia / Erreferentziazko gun e internacionala	+ Zentro-teknologikoa	
ONURADUN ZUZENAK (herritarrek, sagar-eta sagardo- sektorea, ostalaritza, hezkuntza komunitatea, ikerketa alorra, turismoa ...)		Herritarrek / Sektorea / Gure kultura / Ostalaritza-Merkataritza		
ERAGILE ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA (zuzena, altua, baxua ...)		HANDIA		
HERRIAREKIKO KONEXIOA (herri dinamikan txertatua, kanpo eragilea ...)				
KOKAPENA (gaur egungo kokapena, herri barruan, kanpoan, sagastia ...)		Bertan baina eraikin bat eraiki	Murgia inguruan ?	
FINANTZAKETA (Udala, GFA, EJ, kanpo eragileak ...)		Jaurilaritza / Aldundia / Udala / Europa (lortzen bada)		

3. TALDEA

ESZENATOKIAK	A AUKERA GAUR EGUNGOA	B AUKERA	C AUKERA	D AUKERA
ALDAGAIK				
ERREFERENTZIALTASUNA (herri mailakoa, eskualdekoa, EHkoa, nazioartekoa ...)	Bai, baina mugatua da. Osatzeta falta da	Beste sektore batzuetan erreferente izatea		
EDUKIAK (museoa, sagastia, dokumentazio-zentroa, denda, dastatze-aretoa, tailerra ...)	Bateratasun falta Proiektzio handiagora behar da (salto baten beharra)	Herriatik aratako irekita egotea		
ONURADUN ZUZENAK (herriarrak, sagar-eta sagardo-sektorea, ostalaritza, hezkuntza komunitatea, ikerketa alorra, turismoa ...)	Gaur egungo baliabideen araberakoa			
ERAGILE ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA (zuzena, altua, baxua ...)		Partaide sentitzea		
HERRIAREKIKO KONEXIOA (herri dinamikan txertatua, kanpo eragilea ...)		Komunikazioa hobetzea herrira zabaltzeko Akzioak dinamizatzea bi noranzkotan		
KOKAPENA (gaur egungo kokapena, herri barruan, kanpoan, sagastia ...)		Herriarekin integratzailea Proiektzioaren tamainari egokitua Herri gunean		
FINANTZAKETA (Udala, GFA, EJ, kanpo eragileak ...)		Baldintzapen ekonomikoak ez mugatzea proiektua		

ESZENATOKIAK ALDAGAIK	A AUKERA GAUR EGUNGOA	B AUKERA	C AUKERA	D AUKERA
ERREFERENTZIALITASUNA (herri mailakoa, eskualdekoa, EHkoa, nazioartekoa ...)	Eskualdea	E.H		
EDUKIAK (museoa, sagastia, dokumentazio-zentroa, denda, dastatze-aretoa, tailerra ...)	Museoa / Sagastia / Denda...	Museoa / Sagastia / Denda / Dastaketa aretoa / Dokumentazio Zentroa (baldintza hobeagotan) / Proiektzio aretoa		
ONURADUN ZUZENAK (herritarrak, sagar-eta sagardo- sektorea, ostalaritza, hezkuntza komunitatea, ikerketa alorra, turismoa ...)		Herria Taulako denak		
ERAGILE ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA (zuzena, altua, baxua ...)	Baxua	Altua eta zuzena • Koordinazioa • Parte hartzea Esperientziak		
HERRIAREKIKO KONEKIOA (herri dinamikan txertatua, kanpo eragilea ...)				
KOKAPENA (gaur egungo kokapena, herri barruan, kanpoan, sagastia ...)		Bertan		
FINANTZAKETA (Udala, GFA, EJ, kanpo eragileak ...)	Udala, dirulaguntzak	Kanpokoa Baldintzak		

4.3 Banaka, *Zer galdetuko diegu herritarrei?*

Dinamikei bukaera emateko, *Zer galdetuko diegu herritarrei? Zer galdetuko zenukete zuek?* galdera banaka erantzun dute.

ZER GALDETUKO DIEGU HERRITARREI?

- Sagardo ETXE/GUNE/EREMU herrikoia, jasangarria, denona eta denontzako izateko
 - Zer eskatuko zeioa ? zerbitzuak, aukerak ...
 - Nolakoa? Atsegina, umeentzako erabilgarria, biltzeko toki informala, herritik gertu, herrian ...
 - Gune hau osatzeko bide berbak, loturak beste parkeekin irudikatzen al dituzu? Astigarraga osotik ibiltzeko eremu berdeetatik aukera / aitzakia ?
- Sagardoetxea zuk diseinatuko bagenu.... Zer izango litzateke zuretzat:
 - a) Oso garrantzitsua (_ / _ / _)
 - b) Ez duzuna nahi (_ / _ / _)
 - c) Gaur egungo Sagardo-etxetik berdin mantenduko zenukeena.
- ¿Cómo te gustaría consolidar el actual museo de la sidra?
 - a) En un museo con carácter y promoción local
 - b) En un museo referente e integrador de todos los sectores de la sidra
- Herritik herriarentzat, sortu nahi den (Sagardoetxe / Sagardo museo) berri bat nahiko zenuke?
- Sagardo museo berriak (zure ustez) herrikoa edo E.H mailakoa izan behar du / izatea nahiko zenuke?
- Herritar bezala zenbateko garrantzia ematen dizu Astigarragan Sagardo Etxe anitzago bat edukitzeari?
- Beharrezkoa ikusten al duzu Sagardo Etxean dirua inbertitzea?
- Uste duzu Sagardo Etxean dirua eta denbora inbertitzeak on egingo diola herriari?
- Aukeratu : 1 edo 2
Sagardoetxearen etorkizuneko norabidea hau izatea nahi duzu:
 - 1)
 - Gaur egungo egoera

2)

- Euskal Herriko Sagardoetxea
 - Sagardogintza eta sagargintzaren zentroa
 - Herritarrentzako esperientziarekin
 - Finantzaketa, inbertsioa beste administrazioak, udalak, lurra (Kultur Etxe zaharra ez, ondoan)
 - Kudeaketa partekatua
- Sagardoetxea hobetzeko beharra dagoela uste duzu?
 - ✓ Bai erantzutekotan: Nolako erreferaentzialtasuna izan beharko luke?
- Nolako Sagardoetxea nahiko zenuke herrian?
- Zer gustatuko litzaizueke jasotzea sagardo-mundutik herritar bezala?
- Zer estimulu behar duzu Sagardo-munduarekin identifikatua sentitzeko?
- Nahi al duzue Astigarraga herria sagarraren kulturaren erreferente izatea?
- Sagastia erreferente al da honetan?
- ❖ Aurretik heziketarik gabe, liskar historikoengatik, erantzunaren emaitza guztiz aldrebesa izan daiteke)
- Astigarraga, sagarra eta sagardoaren hiriburua izatea nahi duzu?
- Zer iruditzen zaizu, mendia eta ibai bat konektatzen duen proiektu bat egitea? Eta sagastian erdian museoa egitea? Jabierrek aurkeztu duen antzekoa? (beti ere planoak eta adibideak ikusita)
- Identifikatuta sentitzen zara sagardo-kulturarekin? Harro zaude eta maite duzu?
- Nahiko zenuke sagardoaren kultura landu eta ezagutarazten duen gune bat egotea Astigarragan?
- Nahiko zenuke bertako dinamizatzailerik izan? Eta hartzaile?
- Ze baloreak ikusten dituzu Sagardo-etxe batean?
- Zer beharko zenuke bertako partaiderik izateko?
- Ze eragina du zuregan sagardoaren kulturak?
- Nola maitatuko zenuke?

- Beharra ikusten duzue Sagardo Etxea Astigarragan, gaurko egunean, gaurko egoera ikusira?
- ¿Quieres que la sidra siga siendo un referente para Astigarraga?
- ¿Cómo conseguir entre todos serlo?
- Nola irudikatzen duzu etorkizuneko Sagardoetxea?
 - Gaur egungo proiektuaren antzekoa, hobekuntza batzuk eginda (irisgarriago izateko)
 - Herrira zabaldutako proiektu zabaleko baten gisan (mendia herrira), sektorearen eta herritarren elkargune izango dena.
- Zer da zuretzat Sagardo Etxea?
- Sagardo Etxea beharra ikusten duzu Astigarragan?
- Herriari galdetuko nioke zer nahi duen – nolakoa nahi duen parte izateko prest dagoen.
- Herritarrei galdetuko nieke 3 aukera hauetatik zein nahiago duten Astigarragarentzat:
 - a) Oraingo museoa (eskualde mailakoa)
 - b) Sagastiaren ondoan museo berria (EH mailako museoa: Sagastia, denda, dastaketa, faktoria txikia, erakusketa, dok.zentroa, gela anitza)
 - c) Sagastiaren ondoan museo berria. Potenteagoa (Nazioarteko museoa: A + sektorearen bulegoak, faktoria handia, ikerketa)

5. Balorazioa

Saioaren balorazioa egiteko eguraldiaren iragarpena egiteko ikurrak erabili ditugu. Partaideei horietako bat aukeratzeko eskatu diegu eta hurrengo izan da emaitza:



1



8



6



1

6. Itxiera

Hausnarketa-saioan parte hartzeagatik eskerrak eman eta hurrengo urratsak gogorarazi dira:

- Herritarrekin kontraste-saioa: maiatzaren 19an, 11:00tan eta 18:00tan
- Ekainaren 6a, osteguna, 18:00tatik 20:30tara, Astigarragako Kultur Etxe zaharrean.